

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

• Zein da zure bezeroa?

Gure bezeroak ikasten ari diren pertsonak izango dira. Hitz gutxitan esanda, gure bezeroak ikasleak dira.

• Zein dira bezero horien ezaugarriak?

- Gure bezeroen ezaugarri nagusia gazteak izango direla da, nahiz eta pertsona helduentzat ere zuzendua izan.
- Nahi desberdinak edukiko dituzte. Adibidez, batek etxebizitza bat konpartitzeko aurkitu nahiko du eta beste batek, berriz, apunteak.
- Bezeroak unibertsitateko ikasleak eta ikaslegaiak izango dira. Gure merkatua zabal daiteke beste arloetara denboraren poderioz.
- Aplikazioa doan izatea nahiko lukete, diru kontuak dela medio.
- Gure merkatua merkatu-nitxoa da. Hau da, bezero zehatzak eta berezitatea edukiko ditugu.
- Beraien aurreko urteetako lanak edo testuliburuak saldu nahiko dituzten pertsonak izango dira saltzaileak. Baita ere, zerbitzuen saltzailea pisua alokatu edo saldu nahi duena izan daiteke.
- Pisua lortu nahi badute, partekatzeke zein bakarrik alokatzeke aukera nahiko dute.
- Pertsona bera bezeroa zein saltzailea izan daiteke.
- Bezeroak aplikazioa erabiliko dute beraien ikasturtea errazteko.
- Azkeneko ezaugarriarekin lotuta, bezeroek aplikazioa erabiltzeko erraza izatea nahiko dute.